




MAXIKATZEN



AIZPURUTXO

KILOMETROAK LABURTZEN

AZKOITIA

URRETXU

INNOVA

AZPEITIA

KORTE-KLINIKA



Jose Artetxe 5 • 943-025955

...erantzuna gara ...ALBERDI gara

Zergatik diogun Inmobiliaria bat baino garestiago? Lantalde paregabe bat osatzen dugulako, benetako zerbitzu integrala ematen dugulako eta zure behar guztiei erantzuten diogulako.

Hona hemen adibide bat...



HERENTZIA

Alberdi Asesoria

Herentziaren kudeaketa aurrera eraman dugu, oinarriko guztien adostasuna lortu eta arlo fiskal eta juridikoa ondo landu ondoren, aukerarik egokienaren berri emanez.

SALEROSKETA

Alberdi Inmobiliaria

Etxebizitzaren salmenta unean, Inmobiliariako bezeroen artean aukeraketa zuzena egin ondoren, lehen biltan inbertsore bati saldu diogu.



ERREFORMA

Ideeform

Eroslearen gustu eta beharretara egokitutako erreforma pertsonalizatua egin dugu, obraren jarraipen zuzena emanez.

ALOKAIRUA

Alberdi Inmobiliaria

Alokairu bila dabilen malzterrari etxebizitza aparta aurkitu eta alokairu luze baten aukera eman diogu etxe jabeari, biak gustura utziz.



Eskaintza osorako bisita ezazu: www.alberdi-inmobiliaria.com





MAXIXATZEN 411

2021EKO UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IÑAKI MARTINEZ ALBIZU



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Andoni Elduairen Soraluze,
<i>Eman odola</i> | 20 | Elkarriketa Aintzane Agirrebeña
eta Xabier Eizagirre, hitanoa
sustatzeko proiektuko kideak |
| 6 | Hitz bitan Jaione Eizagirre,
eskulanetako irakaslea | 25 | Zakelmari |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Javier
Beristain, <i>Ugarte Igaran</i> | 26 | Erretratua Jon Unanue, arraunlaria |
| 10 | Iritzia Karmen Irizar Seguro, <i>la</i>
Zer behar duzu? Zer egin dezaket
nik? | 30 | Plazan bazan |
| | Imanol Elezgarai, <i>Tinder</i> | 32 | Akordatzeko? Kepa Alberdi Egaña,
<i>Merixuak, gauzainak eta pregoilariak</i> |
| 12 | Erreportajea Herriaren historiaren
parte | 36 | Erreportajea Aspalduko eskaera
<i>gauzatzeaz</i> |
| 18 | Iritzia Jose Ramon Aranbarri,
<i>Eutanasia</i> | 40 | Klik! Ainhoa Beristain,
<i>Mataderoako ekintzak</i> |
| 19 | Iritzi grafikoa Gorka Larrañaga,
<i>Jausoroko leihoak</i> | 44 | Iritzia Irene Elorza Gereño,
<i>Euskalistoak</i> |
| | | 46 | Euskara Miren Alberdi,
<i>Euskal Herrian euskaraz?</i>
Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua:

Nerea Uranga
Erredaktore taldea
Aitziber Arzallus
Anartz Izaguirre
Andoni Elduairen Soraluze
Julen Otaegi Leonet
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna:

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna:
Egoitz Azkoitia
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:**
Javier Beristain
Karmen Irizar Seguro


Imanol Elezgarai
Jose Ramon Aranbarri
Gorka Larrañaga
Kepa Alberdi Egaña
Ainhoa Beristain
Irene Elorza Gereño
Miren Alberdi
Jokin Sudupe

Administrazio

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 850 ale



PUBLIZITATEA



Eman odola



ANDONI ELDUAIEN

Odola bizitzaren sinonimoa da. Odola dugulako lokartu gaitzke lasai iluntzean, eta modu berean esnatu hurrengo eguzki argitan. Odola ezinbesteko osagaia da gure bizitzarako, eta doakoa, behar duen pertsona bati oparitu diezaikeguna.

Ebakuntza gela hartatik sartu-irtena egin nuen egun hartatik nuen buruan odola ematearen gaia, eta bi urte geroago esan dezaket odol emaila naizela dagoeneko, aurtengo urtarrilean eman bainuen odola lehen aldiz. Gaur egun, odola ematea gure gizarteak duen erronketako bat dela irizten diot. Odola ematea ekintza ona da, eta ez bakarrik besteengatik. Gure bizitzako uneren batean, ziurrenik, guztiok beharko dugu odol-transfusio bat, izan istripu bategatik edota ebakuntza bategatik.

Odolaren ohiko eskaerak mantendu ahal izateko, gainera, beharrezkoa da biztanleriaren %4 inguru odol emaila izatea. Azkoitiko batez bestekoa %4a baino altuagoa da zorionez. Zergatik? Lan ikaragarria egiten duen lantalde bat eta premiaz jabetuta dauden herritar asko dagoelako atzean. Halere, kopuruak handiagoa izan ahal duela sinesten dut, oraindik asko baitira sekula odola ematera ausartu edo joan ez direnak.

Odol emailen elkarteek odola ematearen aldeko kanpaina ugari egin izan dituzte gizartean. Ziurrenik, jende asko ez da konturatzen odola emateak duen garrantziaz. Orratzei errespetua eta beldurra dien jendea egongo da, baina balantzaren beste aldeak pisu gehiago izan beharko lukeela uste dut: beharra duten pertsonei lagundu edota bizitzak salbatzera iritsi. Aitortu behar dut nik ere orain arte arrazoi horiek erabiltzen nituela odola ez emateko. Orain, ordea, esan dezaket ez nintzela okertu odola ematen hasteko hartu nuen erabakiarekin.

Zalantzak dituenari edota zorabiatzeko beldur denari esango nioke behin bada ere odola emateko proba egiteko. Odola eman dudan aldi guztietan zoragarri hartu naute, mediku taldea gertukoa eta atsegina da, eta odola eman ondoren ogitarteko on batekin eta ura edanez berreskuratzen dira indarrak.

Garrantzitsua iruditzen zait odolak gure gorputzean zein zeregin dituen azpimarratzea ere. Besteak beste, odolak elikagaiak ehunetara eramaten ditu; oxigenoa, karbono dioxidoa, hondakinak eta hormonak garraiatzen ditu, defentsarako behar diren zelulak eta substantziak behar diren tokietara eramaten ditu, gorputzaren tenperatura erregulatzen laguntzen du eta pHari zein orekari egonkor eusten dio. Horregatik guztiagatik, odola eman ahal dugunok ezin dugu beste pertsona bat odolik gabe utzi. Eman odola, oparitu bizitza! ■■■

**ODOLA EMAN
AHAL DUGUNOK
EZIN DUGU BESTE
PERTSONA BAT ODOLIK
GABE UTZI**

Jaione Eizagirre: "Gauza berriak ikasteak satisfazioa ematen dit"

TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA URANGA

Hogei urtetik gora daramatza Jaione Eizagirrek (Azkoitia, 1965) Plaza Ondo jubilatuen elkartearen eskulanak irakasten. Ikasturte berria maiatzean bukatu zuten, eta berria irailean hasiko dute.

Gurutze puntua, bainika, brodatuak, puntua, kakorrazt-lanak... irakasten ditu. "Denetarik egiten dugu, baita oihalekin poltsak ere".

Nondik nora daukazu eskulanetarako afizioa?

Txikitatik; oso txikia nintzenean, anderee arropak egiten jarduten nuen. Gure amak puntua egiten zuen, eta harekin ikasi nuen, baita kakorraztekin lanak egiten ere. Horretan hasi nintzen, eta ondoren etorri dira beste eskulanak. Zerbait ikusi orduko nola egin nezakeen pentsatzen hasten nintzen. Poltsak asko gustatzen zaizkit, eta txikitatik jardun dut halakoak kakorraztekin, puntuan, bakero oihalekin... egiten. Poltsak eta zapiak oso gustukoak ditut.

Eskulanak zeure kasa ikasi al dituzu?

Batik bat neure kasa ikasi dut eskulanak egiten. Beti dendetako erakusleihoei begira egoten nintzen, eta ikusten nituen gauzak nola egin nitzakeen pentsatzen; gero, jardun eta jardun, ikasi arte. Beno zorte pixka bat ere izan dut; lanek ondo irteten zidaten eta horrek segitzeko animoak ematen zizkidan.

Teknologiak josteko eskulanetan eragin al du?

Interneti esker, aldatu egin da eskulan era hori egiteko modua ere. YouTuben puntuaren, kakorrazten... mundu oso bat dago. Ikusgarria da eskulanak irakasteko zenbat bideo aurkitu daitezkeen bertan. Azken urteetan, YouTuberi esker gauza berri pilo bat ikasten ari naiz. Orain ez dut telebistatik ikusten, Youtuben sartu eta zer egin dezakedan begiratzen egoten naiz. Gero, soberan dauzkadan hariekin eta materialekin ere duak egiten ditut.

Eskulanek denbora pasatzeko balio dute, baina horrez gain, ba al dute beste onurarik?

Ni lasaitu egiten nau eskulanean jarduteak. Gainera, gauza berriak egiten ikastea eta zailak direnak egitea satisfazioa ere bada niretzat.

Eskulan bat polita gelditu dela ikusita gustura gelditzen naiz. Neuk landutako gauzak asko estimatzen ditut, eta arropei, oihalei edota hariei beste erabilpen bat emateari balioa ematen diot; esaterako, lehen egindako jertse bat askatzea eta hari horrekin beste zerbait lantzea.

Jendeak josteko eskulana terapia gisa hartzen al du?

Bai, bai. Plaza Ondo jubilatuen elkartearen ikastaroetara joaten diren gehienak urteetan dabilta: batzuei etxetik irteteko balio die, eta tertulian jarduten dugu lanean. Pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, ikastaroko saioetan ezin izaten dugu jan, maskarak jantzita jarduten dugu eta. Lehen, ordea, ikastaroko partaide guztion urtebetetzeak ospatzen genituen; lan pixka bat egin ondoren, elkarrekin meriendatzen genuen. Ikastaroko saioetan lagunartean egotea lortu dugu.

Zer motatako lanak egiten dituzue gehien?

Aurtengo ikasturtearen azken boladan asko landu dugu kakorrazta, eta mantak edo tapakiak egin dituzte askok. Ikastaroan badago beti gurutze puntuko lanak egiten dituen parte hartzaile bat. Hark landu nahi dituen ideiak ekartzen ditu, eta nik diseinuak egiten dizkiot gero.

Nola egiten dituzu gurutze puntuko diseinuak?

Gurutze punturako berezia den diseinu programa bat erabiltzen dut horretarako. Era askotako irudiak landu izan ditugu, baita haurren argazkietatik ateratako ere duak ere, haurren amamei edota amamek bilobei oparitzeko.

Gurutze puntuan zer irudi lantzea atsegin duzu gehien?

Loreak. Loreei argazkiak ateratzen dizkiet eta horiek oinarri hartuta, gurutze puntuan egiteko ereduak diseinatzen dut. Oso-oso politak gelditzen dira. Etxean horrelako koadro batzuk baditut, eta beste batzuk amari oparitu dizkiot, baita lagun batzuei ere. Horrez gain, kakorraztean umeentzako tapaki txikiak egitea ere gustuko dut, eta horrelakoak ere piloa oparitu ditut.

Eskulanak egitea asko gustatzen zait, eta ondoren bateren bati oparia egiteko ere ondo etortzen zaizkit. ■■■



Ugarte Igaran

ARGAZKIA ETA TESTUA: JAVIER BERISTAIN

Nonbaiten irakurrita nago Ugarte Dorre, Ugarte Igaran eta Larramendi Dorre herriko baserri zaharrenetakoak zirela. Ugarte Dorre aspaldi desagertu zen, eta Larramendi Dorre, berriz, denok dakigu zer ondo txukunduta dagoen. Nire kezka da zer gertatuko den Ugarte Igaraneekin. Larramendi Dorrek izan duen antzeko bilakaera izango al du ala Ugarte Dorrek bukatu zuen bezala bukatuko du? Beldur naiz... ■■■







Zer behar duzu? Zer egin dezaket

Orainsu arte ez dugu izan etxean udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharrik. Beharra etorri zaigunean, ordea, oso erosoia izan da dena. Txanda uste baino lehenago eman ziguten, eta jasotako tratua eta informazioa oso egokia izan ziren. Beren eskuetan dagoen guztia egin dute.

Beren eskuetan dagoena da, ziurrenik, herren geratzen dena. Ez asko edo gutxi delako, eskaintza bakarra delako baizik. Dependentsia maila bakoitzari zerbitzu jakin batzuk egokitzen zaizkio, maila horretan dagoen norbanako bakoitzaren inguruko egoera edo berak nahiko lukeenari erreparatu gabe.

Eguneko zentro bat eta bakarra dago herrian, eta hara doanak parean egokitzen zaion

jendearekin eman behar du eguna, besteak ezagutu edo ez. Beranduxio arte egongo litzateke beharbada ohean gustura, baina ordu berean etortzen zaizkio bila, oker ez banago. Erokeria handia al litzateke eguneko zentro horretara joan beharrean, bere auzoan bertan lokalen bat egokitzea eguna auzokoekin, urte luzez bere eguneroko erreferente eta lagun izan dituen horiekin, pasatzeko? Guraso edadetuak, seme-alaba txikiak edo gaixoaldi luzea bizi

**EZ OTE GENUKE GUK
GEUK ERE ZAINZAREN
INGURUAN
AUTOKRITIKA PIXKA
BAT EGIN BEHARKO?**

duen etxeko norbait zaindu nahi duenari erraztasunak ematea ez al litzateke gizarte humanoagoa eraikitzeko bidea? Etxekoak zaintzeko lana utzi edo lanaldia murriztu behar izateak ez al du erakusten zaintza bera gutxietsita dagoela, nahiz eta, lehenxio edo geroxio, denok behar izaten dugun ondoan zainduko gaituen norbait. Begi bistakoa da Azkoitiko zaharren egoitza kalera ekartzea ona izango litzatekeela, baina kokalekua ote arazo nagusia? Egoitzan dauden guztiak ote daude han beraiek hala aukeratu dutelako? Egoitzako aukera etxean ezina etorri delako egin baldin bada, ez al litzaioke jendeari galdetu beharko, zer behar duzu orain arte bezala jarraitzeko, hala nahi izanez gero behintzat? Eta etxean zaintzen jarraitu nahi

HAUXE BAI JENEROA!



t nik?

badute, horretarako behar duten guztia eskura jarri.

Erakundeei berei dagokien ardura har dezatela eskatzen diegun bezala, ez ote genuke guk geuk ere zaintzaren inguruan autokritika pixka bat egin beharko? Zergatik da hain erraza elikagaien bankurako boluntarioak bilatzea, baina ez arratsaldeetan pertsona edadetu bati pasierara laguntzeko norbait topatzea? Zergatik esaten du jende guztiak, hurkoari laguntzea gustatzen zaiola, baina maiz ezinezkoa da dependentzia handia duen etxeko baten zaintza antolatzekeo nahikoa jende biltzea? Zergatik da pertsona bakarraren ardura bere bikotekidea, emaztea edo senarra zaintzea? Ez al luke haren inguruko denen ardura izan beharko? Ez al genuke

denok gure ingurukoak zaintzea lehenetsi beharko, izan seme-alaba, laguna, etxepekoa, senidea.

Demagun, hemendik aurrera une eta egoera bakoitzean beharra duen horri "honakoa tokatzen zaizu" esan beharrean, "zer behar duzu?" galdetzen diotela, eta horren arabera baliabideak ematen dizkigutela Gizarte Zerbitzuek. Jo dezagun, goizean esnatu eta hortzak garbitzen ditugun bitartean, Egunean Behin egin aurretik, geure buruan inguruan ditugun errepasoa egiten dugula, eta haietako bakoitzaren egoera kontuan izanda, "zer egin dezaket nik?" galdetzen diogula geure buruari. Ez al luke horrek dena aldatuko? Ez al gintuzke horrek gu hobeto aldatuko? ■■■

ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

Tinder

Orainsu, ezagun batek kontatu zidan etxeko aldaketa batean, bere logela berrian metro eta laurogeiko panpina bat topatu zuela ohe gainean. "Hau eta ni ez gara ohe berean kabitzen", esan omen zion bere pisukide berria zenari broma artean. Konfinamenduan, jiu-jitsu egiten zuela-eta panpina inguratu ei zuen berarekin praktikatzeko. "Pertsonekin baino errazagoa da; nahi dudanean praktikatzen dut, eta ez dut min emango diodanaren beldurrik". Panpina trastelekura eramane zezan esan, eta arazoa konponduta.

Azkenaldian, modan dauden ligatzeko sakelako telefonoetako aplikazioetako bat erabiltzean, panpina hori izatearen sentsazioa izan dut. Elkarriketa hutsalak, topikoen trukea, gauetik goizera desagertzen diren pertsonak... Pantailak emandako segurtasun faltsuak erantzukizun afektiboan alde batera uztera garamatza. Aplikazio bat izango da, baina algoritmoaren bi ertzetan daudenak pertsona emozionalak dira. Une deserosoak ekiditearren –nola esan beste bati ez dela nahikoa zuretzat– errazera jotzen dugu. Aitzakietara, isiltasunera, desagertzera. Panpinak bagina bezala. Mina, hutsunea, beldurra, frustrazioa... sentituko ez bagenitu bezala. ■■■





Herriaren historiaren parte

Azkoitian badira mendea betetzear diren familiako negozioak, baita mendea bete eta aurrera jarraitzen dutenak ere. Oztopoei aurre egin eta garaian garaira egokitzen jakin dute, baita bezeroen kontsumo joera berrietara egokitzen ere. Herrian ibilbide luzea egin duten lau negoziorekin hitz egin du Maxixatzenek.

Testua: **Aitziber Arzallus eta Anartz Izagirre.**

Argazkiak: **Aitziber Arzallus, Anartz Izagirre eta utzitakoak.**

Negozio txikiei bost, hamar edo hamabost urtean eustea ere ez da izaten erraza, baina Azkoitian badira ehun urteak betetzear edo ehun urtetik gora dituzten familiako enpresak, herriaren historiaren parte direnak. Krisialdi ekonomikoei aurre egiten eta herritarren ohitura aldaketetara egokitzen jakin dute, eta familian bertan erreleboa bilatzen, lekukoa belaunaldi batetik bestera pasatuta. Sofia estudioa, Bittor harategia, Martiarena inprimategia eta Aizterri dekorazio denda dira lau adibide.

SOFIA ESTUDIOA: 125 urtez Azkoitian

Etxebizitzaren eta bestelako lokalen apainketan zein diseinuan tradizio handia duen komertzioa da Sofia Studio 18. Maria Juaristi Espel (Azkoitia, 1972) da egun estudioa kudeatzen duena, eta bere birramona Sofia izan zen dendaren sortzailea; hortik datorkio establezimenduari izena. 1897. urtean ireki zituen ateak, eta lokal aldaketak zein bilakaera nabarmena izan baditu ere, gaur egun hasiera-hasierako esentzia mantentzen duela azaldu du Mariak.

Azkoitiarraren arabera, bere birramonak saltokia ireki zuenean ia ez zen komertziorik existitzen herrian: "Hasieran Plaza Berrin ireki zuen Sofiak denda, eta kooperatibarekin batera herrian zegoen denda bakarrenetarikoa izango zen". Bartzelonara joaten zen Sofia materiala erostera: "Ekintzailea izan zen nire birramona, eta bere anaiarekin batera joaten zen oihalak erostera. Jendea baserrietatik dendara jaisten zen, oihalak erosi eta horiekin soinekoak-eta egiteko".

Ondoren, 1942. urte inguruan, Ibai-Ondo kalera aldatu zuen denda Sofiak —egun han dago estudioa, 18. zenbakian—, eta bi pisuko etxebizitza egin zuen bertan; denda etxearen azpian ireki zuen. Urte batzuk geroago, Mariaren amak hartu zuen lekukoa: "Nire amak bere amamaren kontuekin jarraitu zuen, baina urte batzuk beranduago nire aitak tailerra jarri zuen bertan, eta amak berriro ere kalean jarri zuen saltokia. 80ko hamarkadan, ordea, berriro bueltatu zen Ibai-Ondora". Azkoitiarrak dio bere amak "denetarik" saltzen zuela: "Hariak, alfonbrak, oihalak... gauza asko izaten zituen".

1997an, 100 urte

Mariak Madrilen gauzatu zituen barne diseinuko ikasketak, eta horiek bukatu eta berehala Azkoitira itzuli zen: "Gu zazpi anai-arreba gara, eta inork ez zuen lanbide honekin jarraitu nahi. Nik, ordea, ez nuen Madrilen gelditu nahi, eta Azkoitira itzuli eta amarekin lanean hasi nintzen". Ordutik, komertzioak "bilakaera handia" izan duela dio: "Dendarekiko nuen kontzeptua aldatzen joan da urte hauetan guztietan, eta pixkanaka behar berrietara egokitzen joan gara".

Bezeroen kontsumo joerak aldatu diren heinean, eskaerak ere aldatu egin direla dio azkoitiarrak. Egun, etxebizitzetako eta lokaletako barne diseinuez arduratzen dira, besteak beste: "Etxeetako obra integralak egiten ditugu, eta azkenengo xehetasunera arte zaintzen dugu dekorazioa". Internetek ere gauzak "asko" aldatu dituela dio: "Produktuetatik haratago, zerbitzuak eskaintzen hasi gara; etxean ordu asko igarotzen ditugu, eta norbera bertan ondo eta goxo sentitzeko erremintak eskaintzen ditugu". Hala eta guztiz, "betiko bezeroei" ere eusten dietela nabarmendu du Mariak: "Amak zituen



bezeroek ere oraindik etortzen jarraitzen dute, eta horiek funtsezkoak dira guretzat".

Sektore gehienei COVID-19aren pandemiak kalte nabarmenak eragin badizkie ere, azkoitiarrak dio beren sektorean kontrako efektua izan duela. Hain zuzen ere, etxean ordu asko igarota, jendeak bizilekuari "garrantzi handia" eman diola nabarmendu du, eta "oso ondo" egin dutela lan. Hala eta guztiz, motelaldiak ere izan ditu Sofia Studio 18k; batez ere, eraikuntza krisiak eztanda egin zuenean: "2008ko krisiak zuzenean eragin zigun, azken finean guztia kate bat delako. Nik, ordea, 2009an obra garrantzitsua egin nuen lokalean, eta duela zenbait urte buelta eman genion krisiari. Orain oso momentu onean gaude". Hemendik aurrera ere etorkizun oparoa espero du Mariak: "Garrantzitsuena da gustatu egiten zaigula gure lana, eta orain arte bezala jarraituko dugu aurrerantzean ere".



BITTOR HARATEGIA: Belaunaldi aldaketa kolokan

Bittor harategiak 70 urte inguru daramatza Azkoitiko Berdura Plazako postuan, eta Maite Larrañaga Aramendi (Azkoitia, 1961) eta bere anaia dira egun saltokiaz arduratzen direnak. Bi anai-arreben aitak ireki zuen harategia. "Bizi balitz, gure aitak 101 urte beteko zituen aurten. Soldaduska zela-eta sei-zazpi urte kanpoan egin zituen, eta itzuli zenean Azpeitiko plazako familia batean egon zen, morroi lanetan. Azkoitira itzultitakoan, harategia ireki zuen, 28 urterekin edo", azaldu du azkoitiarrak.

Larrañagaren arabera, garai hartan lanik izan ez eta harategia irekitzea otu zitzaion aitari: "Orduan ez zuen dirurik, beren amaren etxea abal moduan jarri eta harategia ireki zuen Berdura Plazan". Gogoan du bera txikia zenean postua nolakoa zen ere: "Harategia lehen bi zatitan zegoen; egurrezkoa zen, kolore gorrikoa. Erdian pertsiana bat zuen, eta harrizko mostradorea zuen orduan". Ondoren, ordea, harategia itxuraldatu zuten Larrañaga anai-arrebek: "Eusko Label marka du orain harategiak, eta obrak egin genituen, saltokia eskatzen zizkiguten baldintzetara egokitze".



Bilakaera itzela

Larrañagak azaldu duenez, "ikaragarri" aldatu da harategian lan egiteko modua ere: "Ni txikia nintzenean, txahala ez beste animalia guztiak harategian bertan hiltzen zituzten. Baserritarrek hona ekartzen zituzten untxiak, arkumea eta bestelakoak, eta hankarik gabeko trangetaren gainean hiltzen zituzten animaliak. Duela hainbat urte, ordea, osasungintzakoek debekatu egin zuten hori egitea". Egun, haragiaz gain aurrez prestatutako janaria ere saltzen dute: "Sukaldari bat kontratatu genuen, eta Berdura Plazan dugun beste postuan janariak prestatzen ditu".

Azkoitiarraren arabera, kontsumo joerak nabarmen aldatu dira: "Lehen askoz garrantzi handiagoa ematen zitzaion jateari, agian gure aurrekoek gosea pasatu zutelako edo... Horrez gain, asteburuetan familiarekin biltzen zen jendea, eta produktu asko erosten zituzten otorduetarako". Egun, ordea, gazteek harategian erosteko ohitura galdu dutela dio: "Jende askok herritik kanpo egiten du lan, eta askok aste osorako erosketa egun bakar batean egiten dute, askotan supermerkatuan".

Bestalde, Berdura Plazaren egoerak ere ez duela laguntzen azaldu du Larrañagak: "Inguruan ez dago aparkamenturik, eta Berdura Plazaren atzean bost minutuz kotxea utzita agian isuna jartzen diete bezeroei. Horrela nor etorriko da? Nik uste erraztasun gehiago jarri beharko lituzketela, eta hona saltzera etortzen diren baserritarrei ere gehiago lagundu beharko litzaiekeela".

Larrañagak "zaila" ikusten du Bittor harategiak hirugarren belaunaldi bat ezagutzea. "Nire seme-alabek ez dut uste harategiarekin jarraituko dutenik, eta nire anaiarenek ere ez". Izan ere, azkoitiarraren arabera "dedikazio handia" eskatzen du bere ogibideak: "Lotura handia dugu harakinok, eta hemen ez da jaiegunik izaten zapatuetan, ezta zubirik ere. Jendeak ostiral eguerditik aurrera jai edukitzea nahi izaten du, eta harategi batean zaila da hori".

MARTIARENA INPRIMATEGIA: Mendea betetzear

Martiarena inprimategiak hiru urte barru beteko ditu ehun. Domingo Martiarenak zabaldu zuen negozioa 1924an Azkoitiko Plaza Berrin, eta gaur egun haren birbilobek, Iñigo (Azkoitia, 1982) eta Aitor Arribas (Azkoitia, 1994) anaiek, dute familiako negozioaren ardura. 2000. urteaz geroztik, Juin Txiki industrialdean dute lantegia.

Domingo donostiarra zen izatez, eta oso gaztea zela, Zarauzko Quintanilla inprimategian hasi zen lanean; han ikasi zuen ofizioa. Domingok Azkoitian ireki zuen inprimategia bere seme Iñakirekin, Aitor eta Iñigoren aitonaarekin. Iñakik erakutsi zion ofizioa Tito Arribas (Zumarraga, 1957) suhiari; Titok bere emazte Arantxari (Azkoitia, 1958); eta senar-emazteek oraindik ere inprimategian jarraitzen duten arren, dagoeneko pasatu diete lekukoa Iñigo eta Aitor semeei. Urte batzuek bi tailer izan zituzten martiarenatarrek: Azkoitian bata, eta Zarautzen bestea. Duela hogeita bost bat urte itxi zuten Zarauzkoa, eta harrezkero, Azkoitikoa bakarrik daukate.

Aldaketa handiak

Ehun urteotan ikaragarri aldatu da lanbidea, eta horretaz jabetzeko aski da garai hartan erabiltzen zituzten makinei eta gaur egun erabiltzen dituztenei begiratzea. Makina horietako bat Juin Txikiko lantegian dute, eta gainontzekoak ere gordeta dituzte beste leku batean. "Oroigarri gisa daukagu hemen, ez lanerako", zehaztu du Iñigok. "Erabili izan dugu norbaitek lan berezi eta puntualen bat eskatu izan digunean, baina oso-oso gutxitan". Lanbidea nola aldatu den azaltzeko, 1956ko Azkoitiko jaietako programa hartu du eskuetan Titok. "Garai hartan metalezko eta berunezko moldeak hartu eta hizkiak bata bestearen alboan jarriz osatzen zituzten hitzak. Argazkirik ere ez zen erabiltzen, klitxe deitzen ziren zigilu moduko batzuekin egiten zituzten irudiak. Eskulan hutsa zen dena, arte hutsa, artisauak eta artistak ziren". Arrazoa eman dio Arantxak. "Sekulako abilezia zeukaten eskuekin; osaba Josek egundoko koadroak marrazten zituen".

Ordenagailuen etorrerarekin eta makinaria berriarekin, batez ere azken hogeitaz urteotan, lanbidea izugarri aldatu dela ziurtatu dute. "Azkoitiko festetako programa hori egitea hilabeteko lana izango zen garai hartan; orain, aldiz, bi edo hiru egunean diseinua egin eta astebetean nahi adina ale izan ditzakegu paperean", esan du Iñigok.



"Digitalizazioak asko erraztu digu lana, baina etengabe berritu beharra ere ekarri digu. Lau urtean behin-edo makina digital berriak sartu behar izaten ditugu". Kolorearen erabilera da beste aldaketetako bat. "Garai batean oso zaila zen koloreetan inprimitzea; azken urteotan gauzak asko erraztu dira zentzu horretan". Bezeroei dagokienez, hamarretik zortzi enpresak direla esan du: "Lehen ere hala zen, eta orain ere bai, gehienbat bailarakoak eta inguruko herrietakoak".



Prestatutako segida

Ia ehun urtez irauteko sekretua zein den galdetuta, lana gogor egitea izan dela aitortu dute laurak, "eta garai berrietara egokitzen jakitea", gehitu du Arantxak. "Kontatu izan digutenaren arabera, aitona-eta nahikoa komeria izan zituzten frankismo garaian. Garai hartan oso kontrolatuta zituzten inprimategiak, eta, besteak beste, ez zuten euskaraz ezer inprimatzerik izaten", esan du Iñigok. "Garai hartan nahikoa oztopo izan zituzten lanerako". Hala baieztatu du Titok ere. "Lan egiteko baimen bereziak behar izaten zituzten. Inprimategi bat ez zen edozein negozio; farmaziak irekitzeko-eta baimen bereziak ematen zituzten bezala, halaxe ematen zizkieten inprimategiei ere".

Martiarenako lehendabiziko hiru belaunaldiak ofizioa elkarri irakatsi zieten, baina gazteenek bestelako prestakuntza jaso behar izan dute. Iñigok arte grafikoko ikasketak egin zituen, eta Aitorrek, administraritzakoak. Biek zuten buruan familiako negozioari eustea. "Oso gaztetatik etorri izan naiz inprimategira laguntzera, eta dagoeneko hogeit bat urte izango dira hemen lanean hasi nintzela", esan du Iñigok. "Gurasoek sekula ez digute eskatu familiako negozioari eusteko, honetarako prestatzeko, baina geuri lanbidea gustatu egiten zaigu eta horregatik erabaki genuen arte grafikoak eta administraritzak ikastea".



AIZTERRI DEKORAZIOA: 106 urte eta aurrera

Kale Nagusiko Aizterri dekorazio denda da denboraren joanari aurre egiten jakin duen beste negozioetako bat. 1915ean zabaldu zuten Jose Alberdik eta Ascension Txurruka senar-emazteek, gaur egun dendaren ardura duen Txaro Alberdiren (Azpeitia, 1988) birraitonak eta birramonak. "Hasiera batean aroztegia jarri zuen aitona, eta handik pare bat urtera zabaldu zuten denda, duela 106 urte", kontatu du Jorge Alberdik (Azkoitia, 1955), Txaroren aitak eta Joserena eta Ascensionen bilobak. "Orduan burdindegia zen, baina denetarik saltzen zuten: janaria, gerrikoak, aterkiak... harrapatutako guztia".

Gerora, Jorgeren izeba-osabek hartu zuten dendaren gidaritzak, Alberdi-Txurruka anai-arrebek; Angelitak, Maritxuk eta Raimundok, hain zuen. "Haiek gauza berriak sartzen joan ziren: dekorazioko gauza gehiago, apaingarriak, oparitarako gauzak, altzari laguntzaileak... baina burdindegia eutsi egin zioten", zehaztu du Jorgek. Bera izan zen hirugarren belaunaldia. "Bizitza guztian hementxe ibili izan naiz, baina hasi-hasi, 20 urte nituela hasi nintzen dendan, eta 45 urtean jardun dut".

Jorgek dendan igaro dituen urteetan goitik behera aldatu da herritarren bizimodua, eta garaian garaira egokitzen asmatu behar izan du Aizterri. Sekretua "konstantzia" izan dela uste du. "Nire izeba-osabek oso garai onak bizi izan zituzten, herrira jende pila bat

etorri zen garaia. Nik garai haren parte bat harrapatu nuen, baina baxualdiak ere ezagutu ditut: 1983an krisia, 1995ean krisia, 2008an egundoko krisia...". Baita Interneten etorrera ere. "Horrekin ez daukagu lehiazterik, baina guk beste zerbitzu bat ematen diegu bezeroei, gertukoa eta konfiantzazkoa, eta horretan jartzen dugu indarra. Saiatzen gara bezeroak ahalik eta ondoen zaintzen, ahalik eta gauzarik politenak eta interesgarrienak ekartzen, marka eskusiboak eskaintzen, ahalik eta erakusleho politenak jartzen.... Gorabehera handiko urteak izan dira, baina, hala ere, eutsi egin diogu".

Laugarren belaunaldia

Orain, alabak hartu dio erreleboa. "Egia esateko neuk ez zuen gehiegi animatzen; berak bazuen bere lana eta bide hartatik jarraitzeko esaten nion, bere bidea egiteko. Izan ere, dendak, begiratu batera, oso polita ematen du, baina egundoko barruko lana dauka; ordu asko sartzea eskatzen du, eta gaur egun dagoen egoerarekin, dendari eusteak merezi ote zuen galdetzen nion neure buruari", aitortu du Jorge. "Bestalde, ordea, kristoren karga sentimentala sentitzen nuen; ehun urtekoa nik akabatzeak egundoko pena ematen zidan". Bere buruarekin borroka handia izan zuela esan du, eta Txarok esan zionean dendarekin jarraituko zukeela, lasaitu egin zela adierazi du. "Halaxe da; ez nuen animatzen, baina egundoko lasaitua hartu nuen".

Txarori beti gustatu izan zaio dendan jardutea, eta oso gaztea zenetik joaten zen aitari laguntzera. "Hiru anai-arrebetatik gehiena etortzen zena izan da", Jorgeren arabera. "Duela hiruzpalau urte dendara gehiago etortzen hasi nintzen". Jorge orduan hasi zen Txaroren gaitasunez ohartzen. "Konturatu nintzen gustatu egiten goxoa da, eta gainera, balio zuela: gustu ona dauka, jendea tratatzen gaitasuna, eta gauza horiek asko balio dute". Pixkanaka-pixkanaka dendari denbora gehiago eskaintzen joan da Txaro, erabateko ardura hartu duen arte. "Duela urtebete pasatxo hasi nintzen dendan bakarrik egoten, eta orduan erabaki nuen beste lana uztea eta honetara buru-belarri jartzea".

Txarok ez darama denbora asko dendaren arduradun, baina dagoeneko eman dio bere ukitua. Aizterri zena, Aizterri Home & Decor da orain, eta produktu berriak eskaintzen hasi da. "Arropa batzuk, txakurrentzako lepokoak, belarritakoak... niri gustatzen zaizkidan gauzak". Aitarekin eskuz esku jardun duen urteak dendaren martxa ikasteko "funtsezkoak" izan direla aitortu du. "Bakarrik etortzen hasi nintzenean banituen nire zalantzak. Banekien mostradorearen atzean egoteko gai izango nintzela, baina neure buruari galdetzen nion gai izango ote nintzen eskariak behar bezala egiteko, erakuslehoia aldatzeko... Baina ikusi dut baietz, bakarrik ondo moldatzen naizela, kapaz naizela eta egiten dudanarekin gustura sentitzen naizela".

Momentuz, beraz, Aizterrik badu segida, eta pozik daude aita-alabak. Familiako negozioari eustea "polita" iruditzen zaio Txarori, eta aurrera ateratzeko bere esku dagoen guztia egiteko prest agertu da. Hala ere, aita aholkua eman dio alabari: "Dendari eutsi diezaiola merezi duen bitartean, baina ixteko garaia iristen bada, lasai itxi dezala, aparteko kezkarik gabe". Ez luke nahi berak sentitu duen zama sentimentala alabak sentitzerik. ■■■



**LARRAÑAGAK AZALDU
DU "IKARAGARRI"
ALDATU DELA
HARATEGIKO JARDUNA**

**MARTIARENATARREN
ARABERA, ARTISTA
HUTSAK ZIREN BEREN
AURREKOAK**

Eutanasia



JOSE RAMON ARANBARRI

2021eko ekainaren 25ean Espainiako Estatuan eutanasia arautzeko legea sartu zen indarrean. Ondorioz, legeak horrela jasotzen baitu, norberarekiko eskubide berri bat sortzen da, eutanasiarekiko eskubidea; hiltzeko behar den laguntza eskatzeko eta jasotzeko pertsona ororen norberarekiko eskubidea, hain zuzen ere. Horrenbestez, eutanasiak legez kanpokoa izateari utzi dio, eta beste ekintza mediko baten gisa arautzen da, eutanasia osasun-sistemaren beste prestazio bat izango balitz bezala aurreikusten baitu legeak. Beraz, gaixotasun edo pairamen sendaezin baten ondorioz sufrimendu egoeran dagoen pertsona baten heriotza pertsona horrekiko eskubidea bihurtu da, aldeztu aurretik berriaz eta denboran behin eta berriz eskatutakoa izan bada.

Heriotza bizitzeko era desberdina da kulturen artean; gure kulturen heriotzak beldurrak sortzen ditu, hasiera-hasieratik bizitzari etsi beharra dagoela irakatsi baitigute, baina ez heriotza iristen den ordurako prest egotera; era horretan, inoiz hilko ez bagina bezala bizi gara. Filosofia gisa ez dago gaizki hori. Baina bizitza mugatua da, eta beraren amaiera, heriotza, haren parte den prozesu naturala eta

sahiestezina besterik ez da, ez baitago heriotzarekin amaitzen ez den bizitzarik, era berean, ezta ere aurretiko bizirik gabeko heriotzarik.


Gure bizitzaren amaiera era askotara irits daiteke, eta nahiz eta konponezina dela jakin, gizaki gehien-gehienok nahiago izaten dugu horretan ez pentsatzea. Gerta dakiguke sufrimendu pertsonala, fisikoa eta psikologikoa sortzen duen gaixotasun edo pairamen sendaezin onartezina jasateko zoritxarra izatea; hala gertatuko balitz, indarrean sartu den lege berri honi esker, herritarrok modu arautuan eta baldintza duinetan joan ahal izateko aukera izango dugu.

Ondo dakit ez dela horrela, baina zalantzarik ez daukat, XXI. mendean, heriotzara baldintza duinetan iristeko, pertsona baten eskubidearekiko eztabaida erabat gaindituta egon beharko lukeela. Horregatik, eutanasiaren legalizazioak aurrerapauso handia suposatzen duela ukaezina da, ez bakarrik gizarte-esparruan,

**BIZITZA MUGATUA DA,
ETA BERAREN
AMAIERA HAREN
PARTE DEN PROZESU
NATURALA DA**

baita pertsonaren duintasunaren eta autonomiarekiko errespetuaren eremuan ere. Izan ere, gaixotasun baten ondorioz sufrimendu jasanezina duen pertsona batek duintasunez sufrimendu horrekin amaitzea erabakitzen duenean, etikoki legitimazio osoa duen hautua da. Zorionez, orain, ez etikoki soilik, legalki ere horrela izango da.

Behin, Woddy Alleni heriotzari buruz zer pentsatzen zuen galdetu zioten; ez zegoela batere ados eta erabat kontra zegoela erantzun zuen. Bat egiten dut hark esandakoarekin, baina heriotzaren sahiestezintasunaz jabetzen naiz, eta pozten naiz bizitzako azken uneei aurre nola egin erabakitzeko eskubidea duen gizarte batean bizitzeaz, baita biziraupena eta agonia luzatzeko bizi-euskarriko neurriak hartzeko edota bizirik mantentzeko tratamendu neurrigabeetara edo apartekoetara derrigortzen ez duen gizarte batean bizitzeaz ere. Garbi daukat duintasunez bizi ondoren, behar-beharrezkoa dela duintasunez hiltzeko aukera izatea. Izan ere, horrek aukera ematen digu gure erabakien erantzule izateko bizitzari, gaixotasunari eta heriotzari aurre egiteko orduan. ■



"Errespetuaren izenean hizkera kendu digute"

AINTZANE AGIRREBEÑA ETA XABIER EIZAGIRRE HITANOAK SUSTATZEKO PROIEKTUKO KIDEAK

Hitanoan aditua eta euskara irakaslea da Xabier Eizagirre; Ahotsak proiektuko arduraduna, berriz, Aintzane Agirrebeña. Herrian hitanoa sustatzeko, Azkoitiko Udalarekin eta gazte talde batekin bat egin dute, Azkoitia hitanoaren arnasmune izan daitekeelako berriro.

Testua eta argazkiak: **Julen Otaegi Leonet.**

Hitanoaren erabilera galbiderantz doala eta, azkoitiarrek egoerari aurre egiteko proiektuari ekin diote. Helburua argi dute: hitanoak bide luzea izan dezala. Iraganeko akatsak eta etorkizuneko esperantzak izan dituzte hizpide Xabier Eizagirrek (Azkoitia, 1957) eta Aintzane Agirrebeñak (Eibar, 1981). Mahai baten bueltan, nokak zein tokak hobera egiteko duten ilusioaz hitz egin dute.

Hitanoaren erabilera sustatzea da proiektu berriaren helburua. Galzorian al da hitanoa Azkoitian gaur egun?

Xabier Eizagirre: Galdezka hasiko bagina, uste dut badela kezka hori duen jendea. Ate batzuk jo ondoren, udalaren bueltan taldea osatzeko modua izan dugu; inondik ere ezagutzen ez nuen jende berriarekin. Dugun kezka da belaunaldi eta erdian edo bi belaunalditan hikaren erabilerak ikaragarri egin duela behera. Jasoketa bat egingo bagenu, uste dut entzunez zein idatziz hitano trakestua bilatuko genukeela.

Aintzane Agirrebeña: Beste ikuspegi bat neukan honetan hasi aurretik, hikaren egoera ez nuen ikusten hain gaizki. Mutilak oso txikitatik hasten dira hika hitz egiten, baina etxean horretan

erakusten ez badiete, ez dute jakingo erabiltzen, ezta neskei desberdin hitz egin behar zaienik ere. Oso-osoa neska gutxik erabiltzen dute hika.

X.A.: Halere, nik beti esaten dut, honi buelta eman nahi baldin bazaio, zorionez munduko tokirik onenetarikoan gaudela. Euskara gu gara, garenak gara, gutxi gara, izan dugun historia izan dugu eta euskararen barruan, hika senide kaskartua da, baztertu dena. Pentsa zer arreta jarri zaion idatzari; ez ahoz kotasunari, ordea.

Zeintzuk dira trakeste horren arrazoiak?

A.A.: Emakume askok diote hika gizonezkoena dela. Hitanoak ere izan du fama txarra: zakarra dela, baserritarrena dela... Badira esaten dutenak, haien gurasoen sasoian, emakumeei ez zitzaiera hika egiten. Hori ez da horrela; bai, egiten zen.

X.A.: Bestelako arrazoiak ere badira. Batetik, euskara batua erabat formala eta zukakoa izan dela uste dut, eta gehien-gehienez hikaren hitzen bat edo beste egin da, behintzat jakiteko hitanoa ere badela. Prestigioa hartu du, eta gurasoek batua eskutik utzi dute euskararen etorkizuna. Bestetik, Elizak zeresana izan duen errezeloa ere badut. Galdezka hasita, Nafarroa Beherean zioten ezkontutakoan zuka egiten ez bazuten, infernura



joango zirela. Akabo! Bizitza osoa sutan igaro behar balute, azkar aldatuko zuketeen zukara.

A.A.: Hori ere kuriosoa da. Gauza bera esaten zidan elkarriketatu batek behin: bere bikotekidearekin hika egiten ari zela, amonak entzun eta errieta egin ziela, esanez hika nola egin zezaketen, zuka egin behar zutela.

Euskara batua oztopoa al da hitanoarentzat?

A.A.: Eskoletan euskara batua lehenetsi da, eta horrek eragin du euskalkien gainbehera. Hika zer da azkenean? Lagunarteko hizkera, eta ahozkoan hobe da herrikoa erabiltzea. Hor dago balantza, eztabaida. Askotan izan da eztabaida, eta oraindik xextra itsusiak sortzen dira.

X.A.: Hikarekin batera gauza asko sartzen dira. Herri honetan alderdi on horiek denak erabili beharko genituzke –esamoldeak, euskalkiko esapideak...–, bizitasun bat izateko euskal liburuetatik eta jardun formaletik haratago.

A.A.: Askok esaten dute gazte hizkera falta dela, erdarara jotzen dutela askotan ez dutelako gazte hizkera egiteko modurik. Baina hortxe dago hika, ahaztuta.

X.A.: Erabili izan dugun hika hori da hemen denon artean urteetan eta mendeetan egin den jarduna, eta, gainera, aberatsa. Bai neska, bai mutil hortik abiatu behar dugu hika indartzeko.

Noka indartzea ere erronka handia izango da, ezta?

A.A.: Jakin behar dugu noka ez dela nesken kontua, mutilek neskengana zuzentzeko ere noka egin behar dutelako. Mutilen artean esaten da: "Guk badakigu". Bai, baina nola? Denek ikasi behar dute toka zein noka.

X.A.: Bien gauza da, elkarrekin egitekoa. Argi utzi behar da erdizka egiten dela, mutil askok ez baitiete neskei noka egiten. Mutil koskorretan, neskei hika egitea gehiago kostatzen zitzaigun, bereizketa hori ikusi egiten genuelako. Gugana herren samar zetorren, eta areagotzen joan da. Orain, erronka handi-handiena emakumeen artean kontzientzia sortzea da. Eta, zorionez, mugitzen hasi diren gehienak emakumeak dira.

Hemendik aurrera zer espero duzue hobetuko dela proiektu honekin?

X.A.: Espero baino gehiago, nahi duguna da ibilbide luzeko lasterketa bat izatea. Izan ere, hikaren erabilera hobetzeko eta aldatzeko ez da nahikoa kanpainatxo bat, ekimen bat edota urte batean egiten den zerbait. Kontzientzia hartzen joan behar dugu, bai batzuk, bai besteek. Pixkanaka batzuk ikasten, ikasitakoa besteei irakasten...

A.A.: Aukera ikusten dut neskak hika ikastera animatzeko, zuka bakarrik egiten dutenak ere egongo direlako. Egitasmo honek herrian mugimendu pixka bat sortzeko ere balioko du. Eta ondo egiten ez dutela ohartuko diren mutil batzuk egongo dira; ez dakit zer puntutaraino, baina... Gurasoak erakartzea ere garrantzitsua da, Azkoitian horietako askok baitakite hika, baina seme-alabei ez diete egiten.

X.A.: Ahal bada, ondo legoke hika eskoletan ere txertatzea; prestigioa emango lioke, izan ez duena eta eman ez zaiona. Txertatze hori, baina, ludikoa izan dadila, jolasgarria; hanka sartzea libre, eta azterketarik ez.

A.A.: Hika bizirik dagoen herrietako eskoletan landuko balitz, herriko hitanoa landu beharko litzateke, ez dira-eta hasiko batua egiten kalean. Izan ere, testuinguru zehatz batzuetarako balio du hika batuak.

Egitasmoaren barruan Ahotsakerako elkarriketak ere egingo dituzue, Azkoitiko hitanoa jasotzeko.

Aldaketarik izan al da ohiko elkarriketekin alderatuta?

A.A.: Bi gauza daude hor: lekukoak hika egiten jasotzea eta hikaren inguruko kontuak biltzea. Produktu desberdina da guretzat, ohituta gaudelako adineko jendea elkarriketatzen, garai bateko kontuak jasotzen; hori da Ahotsaken hasierako helburua. Egitasmo honetan, pixka bat aldatu egin da lana, baina, azkenean, metodologia bera da. Aurreikusita ditugun hamar elkarriketetatik bost egin ditut jada. Xabier Eizagirre izan zen elkarriketatu nuen lehena, eta ikuspegi oso zabala dauka.

Zer bildu duzu elkarriketetan?

A.A.: Denetik. Egia esan, beste zerbait aurkitzea espero nuen Azkoitian; ez nuen hain gaizki ikusten hika. Gauza batzuekin harrituta geratu naiz. Gazte batzuek etxetik jaso dute, baina ahizpen artean hika egiteko ezintasuna dute. Beste kasu batzuetan, ez ziren kontziente, eta hikaren inguruan hausnartzen hasita ohartu dira beren anaiek jaso dutela, eta haiek, aldiz, ez.

X.A.: Interesgarria litzateke hikaren esperientzia jasotzea: nola erabili izan duten, toka eta noka testuinguru jakinetan erabiliko al litzuketen, erabiltzen al dituzten... Gero, hika ezagutzen dutenek irakatsi dezatela.

A.A.: Ereduak inportanteak dira; herriko ereduak, hika ondo egiten dutenenak.

X.A.: Ahotsak-ek egindako grabaketak primeran etorri dira; esaterako, Iturriozko (Oiertzun) hiru



Xabier Eizagirre eta Aintzane Agirrebeña.

**"EUSKARAREN BARRUAN,
HIKA SENIDE KASKARTUA DA,
BAZTERTU DENA"**

**"NOKA EZ DA NESKEN KONTUA,
MUTILEK NESKENGANA ZUZENTZEKO
ERE BEHAR DUTELAKO"**

**"KONTZIENTZIA HARTZEN JOAN
BEHAR GARA, PIXKANAKA HIKA
IKASTEN ETA BESTEEI IRAKASTEN"**



emakumeren elkarrizketa eredugarria da, kafea hartzen ari direla noka egiten dutelako.

Azkoitiko ereduak biltzea lan erraza izan al da?

A.A.: Ahotsaken gertatu izan dena da elkarrizketatzaila gizona izanda, horietako askok hika egiten dutela. Ordea, emakumezko bada, zaila da hori gertatzea. Badira gizon gutxi batzuk noka egin digutenak: Nuarben, Azkoitian... Halako proiektuen helburua, beraz, bada noka jasotzea; hika egingo didan jendea bilatzen saiatu naiz.

Tokaren adibideak, berriz, errazago topatzen dira.

X.A.: Bi zama daude hor: bat, elkarrizketa bera eta sortzen den tentsioa; bestea, emakumea izatearena. Ezaguna izanda ez da hain gogorra.

A.A.: Halakoetan, bi emakume elkartu eta beren artean noka egin dezaten saiatzen gara.

Hika erabiltzeko beldurra galdu egin behar dela uste al duzue?

A.A.: Zeinen sartuta dagoen irudi hori... Hika ez dela edukaziozkoa...

X.A.: Eta edukazio gutxiagokoa emakumeentzat, zapalketa askoren artean nabarmen are zapalduago egoteko. "Guk gozatuko dugu hika. Zuek, ez". Errespetuaren izenean...

A.A.: Errespetuaren izenean hizkera kendu digute. ■■■



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com



Floreaa
SALESTAR IKASTETXEA
FAMILIAK ETA IKASTETXEA,
BAT EGINDA HEZTEN
KONFIANTZAREN PEDAGOGIA
*Zatoz, ezagutu gaitzazu
beasleak zoriontsuak izatearen
gaitza konfiantza dagoelako*
Izanaldi 2/g-AZKOITIA
943-85 30 43 • floreaa@floreaa.eus
www.floreaa.eus

ZERBER

BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALDI GUZTIAKOKO GAIAK AURKITUKO
DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZTATEA,
MARGOLARIETZA, ETXEA, ITURGINTZA, ERKOLAJEA
ETA ABARREKO TREBNERIA, HALA NOLA, TOPLOLUAK,
ERRORDAMENDUAK, SAPRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA: 99 - 20700 AZKOITIA - 638 35 91 26
www.fensteriazerber.com



OBJARTIDORAK
SANDWICHAK ETA HAMBURGESAK
ENTZALAK
PASTAK
GARAGARDO ETA ARDO EKANTZA ZABALA
TEREFAZA HANDIA ZUZENKO EMANALDIAK
KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75



ARTISAU PIZZAK
ENTZALAK
PASTAK
PLATZEN KONBINATURAK
RACION
OGITARTIDORAK
ARDO EKANTZA ZABALA
SOMU ETA ANJO EKOPI
PAREGABEAK
LAPURGATETAN 00 DO ATTE BERTIA
KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

Non dago Zakelmari?



Ekaineko Maxixatzen aldizkarian Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 36. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, Ane Izagirre bazkideari egokitu zaio Herrixen merkatarik elkarteari emandako 50 euroko erosketa bonoa. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna uztailaren 14a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



AZKOITIAK

bat gehiago



**BATU MAXIXATZENEN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

"Badakit asko kostatuko zaidala Bermeotik joatea"

JON UNANUE URDAIBAICO ARRAUNLARIA

Jon Unanue Bermeoko (Bizkaia) Urdaibai arraun elkarteko arraunlaria da 2010az geroztik. Arrauneko lehen bi denboraldietan Zarautz Arraun Elkartean aritu zen, Urdaibaik utzita. Azken urteetan, baina, Bermeoko arraunlari garrantzitsuenetako bat bilakatu da. Arraunak bere alde onak eta txarrak dituela aitortu arren, "gustura" dago azkoitiarra Urdaibai taldean. Sasoi berria hasteko irrikitan da Unanue.

Testua: **Andoni Elduaen Soraluze**. Argazkiak: **Utzitakoak**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Hamar urte. Erraz esaten da, baina hamarkada bat bete du Jon Unanue arraunlari azkoitiarrak Bermeoko Urdaibai arraun taldean. Hain zuzen ere, 2010eko neguan hartu zuen Bermeorako bidea. Arraun taldearen bigarren traineruan hasi zen arraunean azkoitiarra, eta 2011. urteko udaberrian Zarautzera joan zen utzita; han egin zituen 2011ko uda eta 2012. urtea osorik. Zarautzen denboraldia amaitu, eta urte hartan bertan itzuli zen Bermeora Unanue. Oraindik orain, Urdaibain jarraitzen du arraunlari azkoitiarrak, traineru eta arraunlari onenak biltzen dituen Eusko Label ligan lehiatzen.

"Proba" egiteko asmoz joan zen Urdaibaira azkoitiarra. "Pixkanaka pilota uzten hasi, eta kiroldegira joaten hasi nintzen korrika-eta egitera. Gorputza ondo mantentzea zen nire asmoa. Gero, ordea, Bermeotik egin zidaten kasu, han arraunean proba egin nahi al nuen galdetuz. Baiezkoa eman nien". Harrobiaren presentzia orduan txikia zela aitortu du Unanuek. "Harrobiko arraunlariak falta zituzten lehen taldearen traineruan; azken urteetan beti egon izan da arazoa alde horretatik".

Gaur-gaurkoz, astean bost alditan joaten da Bermeora, baina urtean zehar ez dute astean entrenamendu kopuru bera egiten. "Azaro aldean,

asteburuan behin joaten gara Bermeora entrenatzera, eta urte berriaren ondoren, larunbatetan eta igandeetan ere hasten gara joaten. Otsaila iristearekin batera, ordea, hirugarren entrenamendu egun bat gehitzen digute. Udaberri aldera, berriz, laugarren saio bat ere izaten dugu, eta denboraldia hasi aurretik astean bost entrenamendu egin behar izaten ditugu".

Arraunlaria "gustura" dago Bermeon, eta "osagai desberdin batzuk" eman ditu esandakoa arrazoitzeko. Egun, Urdaibai eta Bermeo "bigarren etxea" dira Unanuerentzat. "Nire bigarren herria da. Dagoeneko etxekotuta nago han. Gainera, herri berezia da Bermeo, eta Urdaibai talde irabazlea izan da azken urteetan. Dugun taldetxoa ere azpimarratuko nuke. Kinto beretsuko lagunak gara; askotan ez du ematen talde bat garenik ere. Taldea ezagutzen dut, eta badakit asko kostatuko zaidala Bermeotik joatea. Nahiz eta Azkoititik oso urrun egon, Bermeon maitatuak sentitzen gara, ondo zaintzen gaituzte, eta gustuko lekua dut". Azkoititik Bermeora sarri egin behar izaten du bidaia Unanuek, eta "oso gogorra" dela dio. "Arraun kontu honetan alderdirik txarrenetako bat da hara bidaiatu beharra. Bermeotarrentzat erraza da etxeko atetik irten eta hamar minutuan entrenatzeko lekuan egotea, baina azkoitiar





batentzat gogorra da hori. Gainera, urteak aurrera doaz, eta azkenean min egiten du horrek. Donostiako eta Getariako bi mutilekin batera egiten dut Bermeorako joan-etorria, eta eskerrak haiei".

Arrauna kirol gogorra izan arren, hamarkada bateko arraun ibilbideak askorako balio izan dio Unanueri; esanahi handia du azkoitiarrarentzat traineru barruko lanak. "Arrauna nire zaletasunik emankorrena da gaur egun. Saihetsezina da niretzat arraunarekin ez pentsatzea. Entrenamenduan zer egingo dugun, lehiatzen nola ibiliko garen, irabazteko gai izango garen edo ez, zenbateko potentziala dugun, gure zenbakiak zein diren, arraunlariak eta ordezkokoak zein izan daitezkeen... Beti horri guztiari bueltaka ibili ohi naiz". Pentsamenduak pentsamendu, arraunak gozatzeko zein sufritzeko tarte asko eskaintzen dizkio Unanueri.

Denboraldia martxan

Hil honetan bertan hasi dute aurtengo Eusko Label liga, eta Urdaibaiko trainerua prest dago aurtengo sasoiari ekiteko. "Talde polita dugu, baina garbi dago ez dugula duela urte batzuk genuen potentzialik; bestelako distira behar da banderak irabazteko lehian sartzeko". Unanueren iritziz, egun Urdaibaik ez du garai batean izan zuen botererik. "Izan ditugu estropadak nahikoa erraz irabazten genituen urteak, baina orain ez dugu urte haietako ahalmenik". Aurrean itsasoratuko den taldearen inguruko gorabeherak ere azaldu nahi izan ditu azkoitiarrak. "Iaztik ez da asko aldatu taldea, eta nahikoa txukun aritzeko gai izango gara. Betiko talde lehiakorra izaten jarraituko dugu, baina liga bat irabaztea oso zaila ikusten dut. Nahiago nuke okertuko banintz eta banderengatik lehian ibiliko bagina. Ez da erraza izango, ordea".

Aurretik 22 estropada dituzte ligan lehiatuko diren hamabi arraun taldeek. Faboritoak zerrendatzeko

orduan, Unanuek uste du iaz itsasoan agerian gelditu zen joerari eutsiko zaiola. "Iaz goi mailan aritu ziren taldeak dira faboritoak: Santurtzi, Hondarribia eta Zierbena. Hiru talde horiek gainerakoak baino koska bat gorago egongo direla uste dut". Hiru traineru horien ondorengo taldean ikusten du Urdaibai. "Hiru horien ondoren Donostia, Orio eta gu egongo garela uste dut". Faboritoak faborito, Unanuek dio Urdaibai ez dela sekula helburuak finkatzearen aldeko taldea izan. "Betiko saltsan jarraitu nahi dugu, gainerakoei aurre eginez. Irabazteko aukera dugunean, berriz, muturra sartzen ahaleginduko gara. Guk ez dugu bi edo lau bandera irabazteko helbururik jartzen, ezta liga edota Kontxako estropada irabaztekoa ere. Martxan jarritakoan, denborak erakutsiko digu zertarako gai garen".

Arraunak emandakoa

Arraunarekin lotuta duen oroitzapen onena aukeratzeko buruari buelta bat baino gehiago eman behar izan badio ere, argi du zein den berea: 2014. urteko Kontxako estropadak ditu gogoan Unanuek. "Inor baino gehiago izan ginen, eta erraz irabazi genuen. Bi asteburuetakoa estropadetan oso-oso

JON UNANUE

- **Adina:** 33 urte.
- **Ikasketak:** Mantenuaren eta muntatzearen goi mailako zikloa.
- **Lanbidea:** Artezketaren muntatzaile mekanikoa naiz.
- **Arraunlaria ez banintz izan...** nire burua 100 kiloko patata zakua ez bihurtzeko edozer egingo nuke.
- **Estropada amaitutakoan...** posible bada ospatzea eta bestela etxera itzultzea.



erraz aritu ginen: 19 minutu eta segundo bateko eta 19 minutu eta bi segundoko denborak egin genituen orduan, hurrenez hurren. Bestelakorik ere izan du Unanuek, ordea. Iaz sorbaldan izan zuen lesioa aipatu du. "Sorbaldako lesioak min egin zidan. Ez nekien lehiatzeko gai izango nintzen, eta une txarrak pasatu behar izan nituen". Hala eta guztiz ere, lehiatzeko gai izan zen Unanue, eta honela azaldu du. "Eskerrak arraunean egiteko gai izan nintzen. Gauza bat da fisikoki izorratuta egotea, baina beste bat burua izorratzea; hori askoz okerragoa da. Minez eta arrastaka hasi nintzen, baina azkenean arraun normal egiteko gai izan nintzen".

Kontxako hiru estropada ditu irabazita Unanuek, estropada "berezia" inondik inora ere.

"Estropadarik nabarmenena da Kontxakoa, bai duen historiagatik eta bai estropada eremuagatik. Kirolari lotutako festa handi bat da Kontxa. Azken finean, ez du zerikusirik ezerekin; izan ere, ez baita

liga txapelketako estropada bat. Lehiaketaren une horretan asmatzea eskatzen duen estropada da Kontxakoa. Uste dut azken urteetan liga pisua kentzen ari zaiola, baina, halere, pastelaren zatirik gozoena izaten jarraitzen du Donostiako estropadak". Egutegiko gainerako estropadak ere hizpide izan ditu arraunlariak. "Zarauzko estropada ere berezia eta ederra da, bi jardunalditara jokatzeko baita". Badaude, ordea, gehiegi gustatzen ez zaizkion jardunaldiak ere. "Hemerotekari begiratzuz gero, Urdaibai okerrean moldatzen den estropada Getxokoa da; han beti izaten dugu zerbait".

"Irabazten jarraitu" nahi du Unanuek. Hori da arraun munduan zerbait lortzeko al duen galdetuta eman duen erantzuna. "Ez dut irabazteko zintzilik dudan ezer. Azkenean, ligak irabazi ditut, Kontxako banderak ere bai, txapelketak, Kontxako marka guztiak Urdaibairenak dira... Hori guztia pasatuta dago, eta ahaztu egiten da. Gure entrenatzaile batek behin arraunlari galiziar bati esan ziona esango dut: 'Ez kontatu aurretik zer duzun irabazita; kontatu zer irabaziko duzun'".

Unanuek garbi du arrauneko ibilbidearen amaiera gero eta gertuago duela. Halere, ez du ibilbidea ixteko datarik eman nahi izan. "Asko ez zait gelditzen, eta gainera, garbi dut ez naizela 40 urterekin arraunean ibiliko. Ez diot nire buruari iraungitze datarik jarri nahi. Ez dut nire burua beste zazpi edo zortzi urte egurrean ikusten". Maila badu, ahala ere bai. Gorputzak nahikoa dela esan bitartean, urdinez jantzita arituko da lehiatzen Kantauri itsasoko uretan. ■

GARAJE
AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**


Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com





DOMINOAN

Osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Meloia, angurria, muxika eta bi izozki mota marraztu behar dituzu.



Siestan

Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainariak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira anak eta zeintzuk engainariak?



SUDOKU

Uztaila eta abuztua (edo agorrila) urteko hilabeterik ederrenak dira batzuentzat, sasoi horretan ez delako eskola joan beharrik izaten. Bete itzazu bi sudokuak, lehenak UZTAIL hitza osatzen duten hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta L), eta bigarrenak AGORRI hitza osatzen duten hizki desberdinen bidez (A, G, O, RR, I eta L). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

U	I		T	Z
		Z		U
	L			T
A		T		L
	A		T	
	U			Z

		G		RR
RR	A		O	
I			G	RR
L				O
	L		I	A
	RR		L	G




Ai ene! Trapolinera igo eta
irrist egin du gizajoak! Zein da
bere itzal zuzena?

Itzala



Hamaikakoa



Aurki itzazu bi
irudien artean
dauden 11
aldeak.



Ordena itzazu arrain
harrigarri hauek
handitik txikira,
handienari 1
zenbakia emanaz,
eta txikienari 6.

Handitik txikira



Mezua

Eman marrazki
bakoitzari
dagokion hizkia
eta esatera polit
bat agertuko
zaizu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Merixuak, gauzainak eta pregoilariak



TESTUA: KEPA ALBERDI EGAÑA

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Merixuek, gauzainek eta pregoilariak presentzia publiko handia izan dute orain dela gutxi arte. Oraindik merixuak Azkoitiko kaleetan ikusten dira, baina gauzainen eta pregoilarien lanak desagertu ziren Azkoitian; batez ere, teknologiaren garapenaren eraginez.

Merixuen hautaketa eta kargutik kentzea udalaren ardura izan da beti. Dena den, aukeraketa era eta beste baldintza asko aldatu egin dira denborarekin; esaterako, XVI. mendean, merixuak urtean behin izendatzen zituzten. Prestaketa aldetik ere gero eta baldintza zorrotzagoak eskatu izan zaizkie merixuei. XIX. mendetik aurrera epaitegirako udaltzain berezi bat izendatzen zuten, azterketa idatzia tarteko, eta 1922. urtetik aurrera, berriz, udaltzain inspektorea izendatzen hasi ziren.

Bada, azken bi mendeetan merixuen lan edo betebeharrak asko aldatu dira. Garai batean ez zegoen orain adina trafikorik, eta horien ardurarik nagusia herria zaintzea zen. Aspaldiko idatzi batean azaltzen denez, duela hiruzpalau mende merixuei zegokien herriko harategiko kontrapisuaren erabilera ona zaintzea eta Azkoitian zegoen kartzelaren zaintza. Modu berean, 1877.

urte inguruan, haien ardura zen kaleak astean bitan garbitzea. Bestalde, beti lotu da merixuen lana herriko agintarien zaintzarekin, eta hori ez da oraingo kontua bakarrik: duela mende batzuk ohikoa zen alkateak ilunabarrean herrian buelta bat ematea, eta jardun horretan merixua laguntzaile eta zaintzaile izaten zuen.

Merixuek konfiantzazko pertsonak izan behar zuten, baina askotan okerreko bidetik ibiltzen zirenak ere izaten ziren. 1884. urteko dokumentuetan honakoa esaten da: Jose Mari Lapazaran merixuari egun bateko soldata kentzeko isuna ezarri zioten, tabernak ixteko orduak jo zuenean Avenida kafetegian zegoelako. Itxura denez, Lapazaranez ez zuen eskarmenturik jaso orduan; izan ere, urte berean beste zortzi eguneko soldata kentzeko isuna ipini zioten, bederatziak jo eta gero, Jose Azkoitia merixuarekin batera tabernan egoteagatik. Bigarren aldi horretan, Udaltzaingotik kaleratuko zuten mehatxua ere jaso zuen Lapazaranek.

ZERBITZU ORDUETAN TABERNETAN ETA JATETXEETAN SARTZEA GALARAZITA ZUTEN MERIXUEK

Azkoitiko udal agintariak, 1893. urteko udalbatzar batean, udaltzainen arautegi berria onartu zuten, eta hainbat neurri hartu zituzten. Besteak beste, alkatearen eta udal idazkariaren zerbitzutik kanpoko orduetan udaltzainak kalean ibiliko zirena erabaki zuten istiluak saihesteko, zalgurdien abiadura zaintzeko eta eskolako denboran umeak pilotan edo bestelako jolasetan ibiltzea eragozteko. Bestalde, goizeko zortziretatik aurrera, kalean txerriak ibiltzea ere debekatu egin behar zuten merixuek, eta espaloietan jendeak pasabidea libre izateaz arduratu beharko ziren.

Arautegi berriaren arabera, merixuek kalean pasatzen ziren gurdiek eta karroek zeramaten zama miatzeko ardura ere bazuten, eta galarazi egin behar zuten herriko iturrietan arraina edota arropa garbitzea.

Lanegunetan eta jaiegunetan merixuek janzkera desberdina izan behar zutela ere arautu zuten udal agintariak: lanegunetan, urdin ilun koloreko oihalez egindako eta botoi horidun trajea eta txapela jantzi behar zituzten, eta jaiegunetan, berriz, lebita, prakak eta txapela.

Zerbitzu orduetan tabernetan eta jatetxeetan sartzea galarazita zuten merixuek; bakar-bakarrik beren lanarekin lotutako zerbaitetara sartzeko aukera zuten.



Merixuen araudi berria onartu eta hamabi urtera, 1905eko urtarrilean, eguneko eta gaueko udaltzain ordezkotua lanpostua sortu zuen udalak, eta merixu hari bere egitekoak jarri zizkion. Batik bat, eguneko merixuaren edota gauzainaren ordezkapenak egin beharko zituen hark, hala nola gauzainak bere ordutegia bete eta erretiratu ondoren, ordezkotua merixuaren ardura zen goizeko seiak arte herria zaintzea. Igande eta jaiegunetan, berriz, herriko zaintzaleari lagundu behar zion lanean ilunabarretetik erretiratu arte.

Garai hartan, merixuak estuki lotuta zeuden Azkoitiko

Udalari, eta bizitokia ere udaletxeko goiko solairuan izan zuten haietako askok. Baina, gertaera istilutsu bat izan zen 1660ko martxoan. Garai hartan, udaletxean Domingo Otaegi merixua bizi zen, eta udaletxean zuen etxetik bere bi alaba kanporatzeko eskatu zioten agintariei, alabak "bizi txarrekoak" zirela esanda. Agindu hura ez bazuen betetzen, udaletxetik kanpo gelditu beharko zuela mehatxu egin zioten Otaegiri. Azkenean, bi alabak etxetik bota zituen. Udalak merixuei etxebizitza uztea abantaila izan arren, betebeharrak asko eta gabezia ugari ere bazituzten; esaterako,

soldata baxua. Hori horrela, 1745eko idatzi batean esaten denez, herriko enparantzan zen bolatokian jotzen zutenei txanpon batzuk kobratzea eskatu zion Nikolas Labaia udaltzainak udalari, era horretan, bere soldata pixka bat hobetzeko aukera izateko. Agintariei onartu egin zioten eskatutakoa.

Beren janzkera berezitik aparte, txapel gorria eramaten zuten Azkoitiko merixuek, eta 1882an txapel haiei insignia bat ipintzea erabaki zuten agintariei. Errespetu pixka bat ezartzeko, berriz, makila bat eramaten zuten. XIX. mendearen bukaeran, ordea,

kontrabandisten lanak asko ugaritu zirelako, udalak udaltzainak edo poliziak izendatu zituen, eta haientzat lau Remington eskopeta erosi zituen. Garai hartan, istilu asko izaten zen eta atxilotutako gaizkile, lapur eta bestelakoak udaletxe azpian zegoen kalabozoan sartzen zituzten. Herriko zaharrenek ederki gogoratzen dituzte kalabozoko jendearen zaintzan ibiltzen ziren *Txato* merixue, *Bixer* eta *Bernardino Kapittana*.

Gerora, Azkoitian lapur eta antzekoak izan dira, baina baita merixuek parte hartu behar izan duten aparteko iskanbila zalapartatsuak ere. Esate baterako, duela hiru hamarkada pasatxo, La Polla Records musika taldea ekarri zuten Azkoitira. Orduan, nahiko matraka izan zen Durangoko (Bizkaia) eta inguruko talde batzuen aldetik. Jende multzo horietako kide batzuk gasolindegiko komunetan entzerratu ziren eta merixuek han atxilotu zituzten. Handik gutxira, hoguei lagun inguru bildu ziren Udaltzaingoaren aurrean haiek askatzeko eskatuz. Gauzak okerrera ez egiteko, proposamen bat egin zien merixuek Udaltzaingoaren aurrean bildutakoiei: hiru lagun haiek askatu orduko, denek herritik alde egitea. Merixuek jarritako baldintza onartu eta hor bukatu ziren gau hartako liskarrak.

Aurretik aipatutako gertaera hori baino lehenago, 1975ean, hamabi merixu eta gauzain zeuden Azkoitian. Batzuek egunez eta besteek gauez jarduten zuten lanean, baina lan antzekoa egiten zuten. Dena den, merixuen betebeharrak ez zeuden oso argi, eta egoerak eskatzen zuen kasuetan, zaborraren kamioia gidatzen eta antzeko lanetan ikus zitezkeen. Garai hartan, Lambretta motozikletak zituzten herria zaintzen aritzeko. Udaltzaintzako lehenengo autoa 1980. urtean erosi zuen udalak, Seat 124 familiarra.

Gauzainak

Gauzainen lana oso lotuta egon da betidanik merixuenekin. 1579an agertzen da Azkoitiko gauzainei buruzko lehen berria: udalak, arautegi bat tarteko, 1867an heldu zion gaiari serio. Diru baten truke beren laguntza emateko prest agertu ziren herritar batzuk, eta sei gauzain izendatu zituen udalak, haien buru merixuak ipiniz. 1869tik aurrera, herriko argiztapena zaintzeko ardura eman zitzairen gauzainei, eta 1878tik aurrera, berriz, kaleak garbitzen ere jarri zituzten. Bi hamarkada geroago beste agindu bat jaso zuten, eta handik aurrera, hamarrak, hamabiak eta beren erretiroa kantuz adierazi behar zituzten, Kale Nagusiko 54 zenbakia zuen etxetik hasi eta 65a zuenaren

artean. Ordua esatearekin batera, "Ave Maria purisima" ere esan beharra zuten. Agur hori gazteleraz egiteko ohitura zuten gauzainek, baina 1910. urtean egindako udalbatzar batean, adierazpen horiek euskaraz egitea proposatu zuen Fermin Goenaga herritarrak. Juan Jose Alberdi alkateari, ordea, ez zitzaion zuzena iruditu ohitura hura aldatzea, eta eztabaida handia sortu bazen ere, zortzi boto gazteleraz segitzearen aldekoak izan ziren, eta bi boto euskaraz egiten hastekoaren aldekoak. Gerora, 1914an, 1922an eta 1925ean proposamen berdina egingo zuten udalean, baina alferrikako ahalegina izan zen hiru aldi haietan ere.

Atzera-puntada gorriko beroki urdinak jantzita betetzen zituzten gauzainek beren betebeharrak garrantzitsuenak: herriko argiteriaren ardura eta gauez pertsonen nahiz gauzen segurtasuna zaintzea. XIX. mendearen bukaeran, gaueko hotzetik eta euriteetatik babesteko, longaina edo kapotearekin batera, arma bat ere eramaten zuten soinean gauzainek. 1897an, gauzainek armak erabiltzeko eskaera egin zuten, eta agintariak errebolberrak eta *txuzo* izeneko burdinezko punta zorrotza zuten makilak eman zizkien.

Merixuek eta gauzainez gainera, Azkoitiko Udalak kudeatzen zuen beste lanbide

bat pregoilariena izan zen. Haiek interes orokorreko informazioa eta udal akordioak jakinarazten zizkieten herritarrei. Ohiko pregoi-lekuetara iritsi eta han ezagutarazten zituzten albisteak, danbor baten errepiketz lagunduta. Normalean, txapela kendu ohi zuen pregoilariak berri ofizialak emateko orduan. Gainera, ohikoa ere bazen tartean iragarki komertzialak ematea; esaterako, "sagarrik hainbestean daude halako lekuan", eta antzekoak. Galdutako gauza edo objektu baten berri ematerakoan, berriz, "sarituko da" esan ohi zuen pregoia bukatzean.

Merixuak, gauzainak eta pregoilariak lanbide horiek

herritarrekin harreman desberdina eduki izan dute. Adibidez, pregoilarien mezuek jakin-mina sortzen zuten herritarren artean, merixuen esanak, baina errespetuz edota beldurrez entzuten ziren herritarren aldetik. Gauzainak edo serenoak, aldiz, begirunez ikusiak ziren herritarren aldetik, gaueko zaindariak izateaz gainera, konplizitate puntu bat ere izaten zutelako herritarrekin; alegia, hainbat herritarren ezkutuko muxuak edota gehiegi edan ondorengo zelebrekeriak edota gehiegikeriak isilean gordetzen zituztelako behin baino gehiagotan. ■■■



Ricardo Gonzalez Beraza merixu azkoitiarra.



1925eko Ostiral Santuko prozesioan bi merixu.



Merixua parroki aurrean Aste Santuko prozesioan.

Aspaldiko eskaera gauzatzear

Gipuzkoako Foru Aldundia hasi da Azkoitia eta Urretxu arteko GI-631 errepidea hobetzeko lanetan. Luze iraungo dute obrek, eta errepidearen erdian gelditzen den Aizpurutxoko herritarrek eguneroko joan-etorrietan eragina izango dute. Hala eta guztiz, luzera begira hobekuntzak espero dituzte auzotarrek.

Testua: **Aitziber Arzallus eta Anartz Izagirre.** Argazkiak: **Utzitakoak.**

Urola Erdia eta Urola Garaia batzen dituen errepide nagusia izan da betidanik GI-631 errepidea, eta biak ala biak industria sektoreak garrantzi handia duen eskualdeak izaki, bide horretako joan-etorria etengabea izan da hamarkadaz hamarkada. Era berean, errepide hori erabiltzen dute eskualdeko herritarrek Zumarragako (Gipuzkoa) erreferentziatzko ospitalera joateko; horrez gain, beste errepide batzuetara joateko ere jende askok erabiltzen du. Egunean, batez beste, 3.300 ibilgailu pasatzen dira hortik; %10, kamioiak.

GI-631 errepidearen egoera eta garrantzia ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiak bide hori hobetzeko eta aurreratze erriak eraikitze lehen faseko lanei ekin zien joan zen ekainaren 8an, eta modu horretan, azkoitiarren, bi eskualdeetako herritarren eta errepidearen erdian gelditzen den Aizpurutxo auzoko bizilagunen aspaldiko eskaerari erantzuten hasi da foru erakundea.

Hain zuzen ere, Azkoitia eta Urretxu arteko hiru gunetan aurreratze erriak eraikitze asmoa du Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, baita egungo errepidearen "trazadura hobetzea" eta "plataforma handitzea" ere. 1,3 kilometroko tarte batean bi errei izatetik hiru izatera pasatuko da errepidea, bidearen plataforma handituz. Aurreratze tarte horiek norabide batean zein bestean txandaka jarriko dituzte, eta errei bakoitzak 400 metroko luzera izango du. Guztira, 45,5 milioi euroko aurrekontua du Aldundiaren proiektu estrategikoak, eta ekainean hasi zituzten zatiko lanei, 7.759.602 eurokoa. Hamabost hilabeteko iraupena izango dute.

Lan horiek eta joan zen urtean Aizpurutxo auzoan eraiki zituzten oinezkoentzako pasabideak zein zubiak zuzeneko eragina izan dute azkoitiarren, urretxuarren, eta bereziki, aizpurutxoarren egunerokoan. Zentzu horretan, errepideko hobekuntza lanei datozen hilabeteetan trafikoan izango duten eraginaz jabetuta daude bizilagunak, eta eguneroko jardunean ez ezik, batetik bestera mugitzerakoan ere



eragingo diete aurreratze erreiak eraikitzeke lanek.

Errepidean itxaron beharra

Arantxa Irizar (Antzuola, Gipuzkoa, 1956) Aizpurutxoko auzotarra ez ezik San Agustin tabernako jabea ere bada. Obrak hasiko dituzten lekua baino gorago bizi denez, momentuz enbarazu handirik ez diela eragingo azaldu du. "Aurreratze erreia eraikitzeke semaforoak jartzen dituztenean-eta denbora mordoa egon beharko dut pasatzeko zain, baina momentuz, hori izango da herritar moduan obrek eragingo didaten oztopo bakarra".

Tabernako jardunean ere obren eragin handirik ez dutela igarriko uste du Irizarrek: "Astelehenetik igande arratsaldera bitartean edukitzen dugu irekita taberna, baina gehienbat bidegorria erabiltzen dutenak eta Ignaziotar Bidea egiten ari direnak etortzen dira hona. Beraz, ez dut uste errepideko lanek asko eragingo digutenik". GI-631 hobetu ostean ere ez du uste jende gehiago joango denik tabernara: "Auzotarrak eta pasoko jendea izaten ditugu; beraz, guri behintzat ez digu gehiegi eragingo".

Hala eta guztiz, errepidea hobetzeak hainbat onura ekarriko dituela uste du Irizarrek; besteak beste, ibilgailu bereziek erabiltzen baitute GI-631 errepidea: "Neurritz kanpoko piezak garraiatzen dituzten ibilgailuak igarotzen dira Azkoitia eta Urretxu artean, eta hobekuntza lanek irauten duten bitartean, ez dakit horiek hemendik pasatzerik izango ote duten. Halere, lanak amaitzen

dituztenean alde handia izango da haientzat". Ildo horretatik, Irizarrek gogoan du garai batean GI-631 errepidean izaten zen trafikoa: "Azpeitiko Marcial Ucin eta Zumarragako Esteban Orbegoza lantegiak bat eginda zeuden, baita Azkoitiko Sidenor eta Legazpiko Patricio Echeverria fabrika ere. Hori dela eta, kamioi pila bat ibiltzen ziren errepidean gora eta behera".

Errepideko lanek baino, duela hilabete batzuk Erdikobentaren eta Ibaiondoren artean eraiki zituzten oinezkoentzako pasabideak eta zubiak eragin handiagoa izan dutela dio Irizarrek, eta "ikaragarritzko aldeia" ekarri dietela aldaketek auzotarrei: "Lehen errepide albotik ibili behar izaten genuen, eta bidea oso estua eta arriskutsua zen. Orain, berriz, askoz seguruagoa da auzotik zehar ibiltzea, eta auzoko bi tabernen arteko konexioa ere asko hobetu da".

Egiten dena, onerako

Jesus Mari Iturriotz (Beizama, 1941) ez da Aizpurutxokoa, baina bai hara makina bat aldiz joandakoa, eta ederki ezagutzen du errepide hori; batez ere, Aizpurutxotik Urretxura arteko partea. Urretxuko pasiotarren etxeko kidea da bera, eta Aizpurutxoko San Agustin parrokiaren arduraduna 2009az geroztik. Garai batean, igandero joaten zen Aizpurutxora meza ematera; azkenaldian, gutxiago, hileko azken igandeetan eta aste tartean hileta elizkizunen bat egin beharra egokitzen zaionean bakarrik.



Errepidea egokitzeak ziren albistea "gustura" hartu zuela esan du, "beharrezkoa" zelako. Proiektuaren xehetasunak ezagutzen ez dituen arren, egiten dena "onerako" izango dela uste du. "Pentsatzen dut Urretxutik Aizpurutxora arteko zatiren batean aterako dutela hirugarren erreia, eta horrek alde handia ekarriko du, batez ere kamioiek eragiten dituzten auto pilaketak arintzeko". Halakoak ohikoak izaten direla dio: "Urretxutik abiatu, parean kamioi handiren bat tokatu, eta han joan behar izaten dugu Aizpurutxora arte poliki-poliki ilaran, trena bezala, bata bestearen atzetik". Eta kamioiez gain, txirrindulariak aipatu ditu, "igandeetan, kamioiak baino gehiago ibiltzen direlako". Aitortu du beldurrik handiena bi gurpilekoei diela. "Horiek aurreratzeko beste erreira pasatu behar izaten da, eta norbait pare pare badator, tentsio handiko uneak izaten dira".

Aizpurutxon bertan azken hilabeteetan egin dituzten lanak, berriz, "oso mesedegarriak" izan direla uste du parrokoak, nahiz eta oraindik hobetzeko tarterik ikusten duen. "Oraindik ere arin pasatzen dira ibilgailuak herrigunetik, eta abiadura mugatzeko neurriak hartu behar lituzkete".

Garrantzitsuena, segurtasuna

Irizarrek eta Iturriotzek nahiko argi ikusten dute lanek hobekuntzak ekarriko dituztela; Daniel Perezek (Buenos Aires, Argentina, 1964) eta Juanfran Blancok (Hondarribia, Gipuzkoa, 1964), aldiz, zalantzak dituzte. Osasun larrialdietako teknikariak dira biak, ia lau hamarkada daramatzate horretan, erdiak inguru Urola Erdian zerbitzua ematen, eta ondo baino hobeto ezagutzen dute Aizpurutxon barrena doan errepidea: "Azkoititik Urretxu sarrerara, 14 kilometro eta 71 bihurgune", azkar asko esan du Blancok.

Azpeitiko Esklabetan dute egoitza, eta Lasaoitik Azkoitira arteko osasun larrialdi guztien abisuak beraiei iristen zaizkie, baita Beizamakoak eta Errezilgoak ere. Oinarrizko bizi euskarriko anbulantziarekin joaten dira artatu beharreko herritarra dagoen lekura, Perez gidari eta Blanco alboan; handik erietxera, Blanco atzean joaten da, laguntza behar duen herritarrekin. Hilean, batez beste, 90-120 irteera egiten dituzte, eta hamarretik bederatzitan, zauritua edo ondoezik dagoen herritarra Zumarragako erietxera eraman behar izaten



dute. Beraz, atera kontuak: gutxi gorabehera, hilean 200 bat aldiz pasatzen dira Aizpurutxotik.

Kasu bakoitzak bere berezitasunak izaten dituela esan du Perezek, baina bidaia asko "zailak" izaten direla. "Pentsa, ia ordubete behar izaten dugu Errezildik, Beizamatik edo Azpeitiko eta Azkoitiko edozein baserritatik Zumarragako ospitalera iristeko, eta erdibidean edozer gerta liteke. Horrenbeste bihurgunerekin, askotan zorabiatu egiten dira gaixoak". Blancok berak ere ondo gogoan du larrialdi bat artatu eta Zumarragako erietxera joan behar izan zuen lehen aldia: "2001a zen, eta emakume bat eraman behar izan genuen erietxera. Ni atzean nindoan, eta erdibidean emakumea eta biok zorabiatu ginen. Burua leihotik kanpora nuela egin nuen bidaiaren erdia, eta penagarri iritsi nintzen. Gehiago ez nintzela bueltatuko esan nuen". Urteekin, ordea, ohitu egin da.

Perezek, berriz, errepidera adi joan behar izaten du. "Begiak zabal-zabalik joan beharreko errepidea da, edozein unetan ustekabe bat izan dezakezulako. Zama berezia edo material arriskutsuak garraiatzen dituzten kamioi handiak ohikoak dira, lur jausiak ere bai, eta asteburuetan, txirrindulariak eta motozaleak gehitu behar zaizkio horri guztiari". Urteotan eskapada bat baino gehiago egin dituztela aitortu du, "istripurik ez, baina ezustekoak asko". Blancoren arabera, "Gipuzkoa guztian ez da gaixoak ospitalera eramateko horren bide txarrik".

Errepidean hobekuntzak egitea begi onez ikusten dute biek, baina dudak ere badituzte. "Borondatea onena izanda ere, alde batera mendia eta bestera ibaia egonda, ez dago miraririk egiterik. Zati batzuetan aurreratzeko erreak erakitzeko, ordea, errepideko batez besteko abiadura handitu egingo du, jendeak kosta ahala kosta aurreratu egin nahiko duelako", azaldu du Blancok. "Eta horrek sortzen dizkigu zalantzak", jarraitu du Perezek. "Izan ere, errepide hori gai izango al da abiadura handiagoko zirkulazioa jasateko? Arrisku hori hartzeak mereziko al du minutu gutxi batzuk irabazteko?". Edozein aldaketa egin aurretik, "errepidearen segurtasun orokorrari nola eragingo dioten oso ondo aztertze" eskatu dute: "Aldaketak ez daitezela izan istripu gehiagoren iturri". ■

Ezkerrean, Arantxa Irizar Enara alabarekin. Erdian, Daniel Perez eta Juanfran Blanco. Eskuinean, Jesus Mari Iturriotz.

ERREPIDEA HOBETZEAK HAINBAT ONURA EKARRIKO DITUELA USTE DU ARANTXA IRIZARREK

"GIPUZKOA GUZTIAN EZ DA GAIXOAK OSPITALERA ERAMATEKO HORREN BIDE TXARRIK"



Mataderoko ekintzak

1982. urtean musikazaleen lokalak martxan jarri zituzten Azkoitiko abereen hiltegi zaharrean. Orain dela 25 urte, berriz, Matadero Ekintzak sortu eta Matadeixek bizi berri bat hasi zuen. Ainhoa Beristain argazkilariak bertan antolatutako hamaika ekintzaren irudiak jaso izan ditu argazki kamerarekin. Hona adibide batzuk. Argazkiak eta testuak: **Ainhoa Beristain.**



ITXARO BORDA

Buztinezko etorkizuna emanaldia eskaini zuen idazle baionarrak, Ibon RGrekin. 2019ko urriaren 24a.

ANARI

Musikari azkoitiarrak Thalia Zedekekin jotako kontzertua, 2019ko urriaren 4an.



MELT BANANA

Japoniako musika taldearen kontzertua, 2017ko irailaren 27an.



AKAUZAZTE

Etxeko, Matadeiko, musika taldea; 1992. urtean sortua. 2019ko abenduaren 14an jo zuen kontzertua.



EMPTY FILES

Bilboko musika taldea. 2017ko ekainaren 10ean Matadeixen jo zuen, Matadero Ekintzaken 21. urteurrenaren ospakizunen barruan.



INOREN ERO NI

Andoaingo (Gipuzkoa) musika taldea, 2018ko urtarilaren 13an, Matadeixen.



EKINTZAK, BAITA KALEAN ERE

Matadero Ekintzaken 20. urtemugako ospakizuneko ekintza batzuk kalean ere egin zituzten. Irudian, *Makale borroka* antzerkia herriko plazan, 2016ko ekainaren 4an. ■■■

Euskalistoak



IRENE ELORZA GEREÑO

Paseatzera joatea ariketa lasaigarria izan daiteke, baita jarduera asaldagarria ere. Inguruko mendietara joan besterik ez dago eukaliptoak nola hedatzen ari diren ikusteko, eta ibilaldia pakean amaitu beharrean, amorruaren sua piztuta duzula bukatzeko. Sistiaga-Erreka, Larraskanda... dena eukaliptoz betetzen ari dira. Etxe-atarian jarriko diguten zabortegiaz (barkatu, "bolorizazio planta") arduratuta gauden bitartean, sekulako sarraskia gertatzen ari da gure muturren aurrean.

EHUko eta Aranzadiko ikertzaileak (ez ekologista-itsus-magarriak) behin eta berriz esaten ari dira eukaliptoak ingurumenerako kaltegarria dela arrazoi ugariengatik:

- Hosto pozoitsuak ditu.
- Nabarmen hondatzen dituzte errekek (eta akuiferoak): orbel gutxiago eta kalitate okerragokoa jasotzen dute.
- Animalientzat toxikoak dira, erreka inguruko onddoak eta ornogabeak kaltetzen dituztelako. Gainera, Galizian eta Asturiasen arazo larria dute eukaliptoak erasotzen duen kakalardo txiki batekin.
- Espezie sukoia da, hau da, su hartzeko arrisku handiagoa du (gogoratzen 2017ko udako Portugalgo suteekin?).
- Inbaditzailea da: arrotza delako, bere kasa hedatzeko arriskua duelako eta ingurumena kaltetzen duelako.
- Ustiaketa intentsiboaren ereduak bioaniztasunari eragiten dio (kalterako, noski): eukaliptadiak matarrasaz mozten dira (zuhaitz guztiak batera), eta oso maiz. Matarrasek kalte handia egiten dute, errekek lokazten eta bertako bizidunentzat baldintzak okertzen dituzte.
- Ustiapenerako egiten diren pista trinkoek, matarrasekin batera, lurzoruaren galera eta erreken lokaztea areagotzen dute.
- Eukaliptoak zabaldu ahala bertako zuhaitzak ordezkatzeko baditu, espeziak galduko dira.

Baina guk maite ditugu maite gure bazterrak, eukaliptoaren usain gozoak bihotzik ez duen diru zakarraren kiratsa ezkutatzen duenean. Ez dugu ezertxo ere ikasi *intsinis* pinuaren xingola marroien gaitzarengandik, ezta baso-ustiaketa intentsiboaren ondorioetatik ere. Ez erakunde pribatuek ezta ekoizle pribatuek ere ez dute gogoeta sakonik egin, epe motzeko onura ekonomikoa jasotzen duten txostenekin nahikoa dute eta. Eta, bitartean, eukaliptoz estalitako azalera ia bost aldiz biderkatu da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan azken hiru hamarkadetan.

Salduko dizkigute gero *Basque Green Deal* eta gutxi batzuen negozioa zuritzeko balio duten antzeko maniobra ustez modernoak, baina hemen eliteei gustatzen zaizen berde bakarra diruarena da. ■■■

**'BASQUE GREEN DEAL'
ETA ANTZERAKO
MANIOBRA USTEZ
MODERNOAK SALDUKO
DIZKIGUTE GERO**

GIPUZKOAK

BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,

**European
desberdintasun
maila txikienetarikoak**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euzko Lehenengo
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
OSAIN
En Futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoanKongromela

Euskal Herrian euskaraz?



MIREN ALBERDI

EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak, maiatzaren 10ean emandako epai batean, bertan behera utzi zituen Irungo Udaltzaingo zerbitzurako hamabi lanposturi ezarritako hizkuntza eskakizunak, euskaraz ez dakitenentzat "diskriminatzailea" dela argudiatuta.

Beste behin ere, gure hizkuntza-eskubideak zapalduta. Euskal Herrian baztertzaitzat jotzen den hizkuntza bakarra euskara da. Izan ere, Euskal Herrian norbaitek errespetua merezi badu, hori euskaraz ez dakien herritarra da. Herri honetan, hizkuntzari dagokionez (ere), errespetua norabide bakarrean eskatzen da. Eta beti norabide berean. Uste duzue egongo dela munduan beste herrialderik non udaltzainek bertako hizkuntza ofizialak (guztiak) menperatzen ez dituzten?

Auzitegi Nagusiak emandako epaira itzuliz, ebazpenak jasotzen du herritarrek eskubidea dutela administrazioarekin euskaraz aritzeko (eskerrak eman behar genizkioke?), baina nahikoa dela "jendea irretara egiten dion udaltzainetako batek" euskaraz jakitea. Bai horixe! Kontu jakina da, izan ere, euskal hiztunok presarik gabe bizi garela, eta gure kontuek itxaron dezaketela. Udaltzainen zerbitzuak behar eta euskaraz dakiena falta dela momentu horretan? "Itzuli

bihar. Benetan presazkoa balitz, gazteleraz egingo zenuke, hemen denok baitakigu gazteleraz, ezta?".

Iparraldea deitzen diogun aldean bizi diren euskaldunek ere ez dute giro. Han, hizkuntza gutxituen aldeko legea atzera bota dute, partzialki. Ondorioz, murgiltze ereduak ez da sartuko Frantziako Hezkuntza Kodean, eta ez da posible izango estatu zibileko dokumentuetan *ñ*-a eta halako zeinu diakritikoak erabiltzea.

Baina, udaltzainez ari ginela, gure herrikoak garai batean "merixuk" ziren. Orain ez, gutxi batzuk baino ez dira gelditzen. Udaltzain berri asko etorri dira eta hauetakoren batek telefonoa hartuz gero, zera entzungo duzu: "*Policia local de Azcoitia, ¿digame?*" Neuri gertatu zitzaidan ez oso aspaldi. Esaldi horrekin harritu ninduen telefonoa hartu zuen udaltzainak. Aho zabalik, honela erantzun nion: "Barkatu, Azkoitiko Udaltzaingora deituta, ezta?" Benetan diotsuet, beste norabait deitu nuela pentsatu nuen. Hala izatea nahi nuen.

Badakit bi hizkuntza ofizial ditugula eta ezin ditugula derrigortu euskaraz hitz egitera. Badakit bai, baina ez nago ados. Ez dut ulertzen eta ez dut ulertu nahi. Benetan? Azkoitian? Arnasgune omen den herrian? Gero negar egitea alferrik izaten da. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Airera!
Doinua: Aita izena.
Egilea: Jokin Sudupe.

Ikastetxeetan amaiera eman
diotenez kurtsoari
Irakasle ta ikasle artean
alaitasuna nabari
Urtean zehar nahiz eta izan
denek oztopo ugari
Kemenez aurre egin diote
parean zegoenari
Eredu izan zarete eta
zorionak guztiori

Pertsona heldua edozertara
ohitzeko denez kapaza
Umeen kasuan ordeza beti
ez da izaten erraza
Orain gozatu opor hauetan
eguneroko jolasa
Lagunartean aire librean
denbora gehiago pasa
Musuko denak airera bota
ta lasai hartu arnasa

UZTAILAREN 2^{TIK} IRAILAREN 10^{ERA}

2021 GUKA

ARGAZKI LEHIAKETA

B K eto ✨ H U ZH



Parte hartzeko, bidali zure datuak eta argazkia(k):

1. GUKA argazki lehiaketaren webguneko txokora datuak eta argazkia(k) **zuzenean igota**.
2. Posta elektronikoz 'lehiaketak@ukt.eus' helbidera idatzita.
3. Whatsapp bidez, **688 84 63 51** zenbakira idatzita.

SARIAK

1. EPAIMAHAIAREN SARIA: XOXOTeko ATERPETXEAN LAU LAGUNENTZAKO EGONALDIA (GAU BAT) MANTENU-ERDIAN (AFARIA ETA GOSARIA).
2. IKUSLEEN SARIA: TALAI BERRI TXAKOLINDEGIAN BI LAGUNENTZAKO UPATEGIRA BISITA, HAMAIKETAKOA ETA PARE BAT BOTILA
3. BOTOA EMATEN DUTEN ERABILTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA: BI LAGUNENTZAT PADDLE SURF IBILBIDEA ORIA IBAIAN

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



ETORRI DENDARA,
EGIN 20 EUROKO
EROSKETA
ETA IRABAZI



Spotify
Premium
ZERBITZUA
DOAN 3 HILABETEZ!

UDA BEREZIA

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es